
**UDALERRIAN BASERRI
BIDEEN ZOLADURA ETA SANEAMENDU PROIEKTUAK EGITEKO LAGUNTZA PLANA ETA
EGINDAKO BIDEEN MANTENIMENDUA ETA ERABILERA BEREZIA ARAUTZEN DITUEN
ORDENANTZA**

**Udalbatzarrak 1995.09.22an onartua
1997.03.14an Udalbatzarrak aldatua
1997.04.09ko GAOean argitaratua**

HELBURUA

1. Artikulua.

Batetik, bideak egiteko eta finantzatzeko baldintza teknikoak ezartzea, baserri-bideen zoladura eta saneamendua egiteko laguntzen plana aginduko dutenak, eta, bestetik, bide horien mantenimendua eta erabilera berezia arautzea du helburu Ordenantza honek.

APLIKAZIO-EREMUA

2. Artikulua.

Lurzoru Urbanizaezinean dauden, etxebizitza izateko, eraikuntzak honela sailkatu dira:

- Katalogatutako baserriak.
- Bizitzeko etxebizitzak.
- Abelur usiategiak dituzten eraikuntza berriak.

Laguntzen plan honen aplikazio eremua: Lurzoru Urbanizaezinaren eremuan Arau Subsidiarioak Aldatzeko agirian (gaurko egunean tramitatzen) jasotako "Baserrien Katalogoa" etengabe eguneratuan sartuta dauden eraikuntzetara iristeko baserri-bideak baino ez. Baserrian bizi behar da hartarako.

Salbuespen gisa, hasieran bizitzeko diren etxebizitzetara doazen bideei aplikatu ahal izango zaie, geroago abelur usiategia jarri den etxebizitzetan, indarrean dagoen arautegitik ateratzen denaren arabera ulertuta.

Abelur usiategia duten eraikuntza berriei dagokienean, Lurzoru Urbanizaezinaren eremuan Arau Subsidiarioak Aldatzeko agirian dator ezarrita bideak egiteko araubidea.

3. Artikulua.

Baserrietako ateurreak, ia beti duten izaera pribatuagatik, Ordenantza honen tratamendutik kanpo daude, eta horien zoladura nahiz euri-uren biltzea, baserri-bideak zolatzeko planaren barruan Udalak egin behar dituen obretatik kanpo geratuko dira.

PROZEDURA

4. Artikulua.

Laguntzen plan honen babespean egiten diren zoladura eta saneamendu proiektuak, bidearen erabiltzaileek eskaturik sustatuko dira eta Ordenantzak ezarritako baldintzak onartu beharko dituzte aurretik.

5. Artikulua.

Udalaren teknikariek idatziko dute proiektu teknikoa, eta haiek zuzenduko dituzte obrak, erabiltzaileari kosturik sortu gabe.

6. Artikulua.

**ARRASATEKO UDALA - UDALERRIAN BASERRI BIDEEN ZOLADURA ETA SANEAMENDU PROIEKTUAK
EGITEKO LAGUNTZA PLANA ETA EGINDAKO BIDEEN MANTENIMENDUA ETA
ERABILERA BEREZIA ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA**

Bidearen zoladura adjudikatzeko dagozkion eskaintzak eskatu baino lehen, biderei erabiltzaileak(ek) ados egin beharko du(te) hori egitearekin, eta horrela, eskaintza eta adjudikazio prozesuari ekingo zaio.

Gutxienez, hiru eskaintza eskatuko ditu Udalak. Erabiltzaileak(ek) adierazi ahal izango dute, zein enpresari eska dakion proposamena, edo proposamen alternatiboak aurkeztu ahal izango dituzte. Eskaintzarik onuragarriena duen obra adjudikatu baino lehen, kontratua sinatu beharko dute Udalak eta erabiltzaileak(ek).

Gutxienez I edo II. Eranskinean ezarritako klausulak izango ditu kontratuak, egiteko modalitatearen arabera.

7. Artikulua.

Obra bukatutakoan, Udalak errezepzionatuko du hori eta erabiltzailea(ak) beharturik egongo d(ir)a bidea bide-zor etengabera afektatzera, aldi mugagabe batez, bere jabetzako lursailei dagokienean.

"Udalerriko Baserri-Bideen Sarea"ren bide-inbentarioan sartuko dira errezepzionatzen diren bideak.

ESKA DAITEZKEEN BALDINTZA TEKNIKOAK

8. Artikulua.

Hauek izango dira plan hau aplikatzeko egin beharreko bideek beteko dituzten baldintza teknikoak:

- a) 4 metrokoa izango da baserri-bideentzat eskaten den gutxienezko zabalera (3 metrokoa errodadura-franjarako eta metrokoa saneamendua egiteko eta azaleko urak biltzeko).
- b) Salbuespenez, aipatu den gutxienezko zabaleraren salbuespenak onartuko dira, bideak baserri bakar batera egiten duenean. Kasu horietan, neurri hauetara murriztu ahal izango dira zabalerak:

- Errodadura-franjako 2,5 metro + 0,5 metro saneamendua egiteko eta azaleko urak biltzeko, erdi-maldako mozketa bat bada.

- 2,5 metroko de franja de rodadura + 1,00 metro, leku estuan sartuta badago.

Zabalerak murriztearen truke, luzeran 100 metro bakoitzeko, zabaleran 4 metrotik gorako azalera bat eduki beharko du, ibilgailuek gurutzatu ahal izan dezaten.

- c) H-175 hormigoia jo da zolatzeko materialik egokiena, gure inguruan ohiko aldapen ezaugarriak kontuan izanik. Dena den, salbuespen gisara hartzen da garastada hirukoitza edo asfalto-aglomeratua beroan duen akabera, ezaugarri horiek izanez gero aurreko zoladura horrek, eta zorua egoera onean egonez gero.

Aldapa haundiak dituzten bidezatietan, erabali behar den hormigoia derrigorrez gauzatu beharko da dagozkion parrilen bidez.

EGITEKO MODALITATEAK ETA PROIEKTUEN FINANTZAKETA

9. Artikulua.

Ordenantza honetan aipatzen diren bideak egiteko modalitateak hiru izango dira:

- a.- Auzolan modalitatea; auzolana izango da: Hormigoia obran jartzea, eta obraren lan osagarriak - enkofratzea, desenkofratzea eta egurrak garbitzea, isuri, zabaldu eta dardaratzea- biderearen erabiltzaileek egingo dituzte. Kontratak jarriko duen obra arduradun batek gainbegiratuko

**ARRASATEKO UDALA - UDALERRIAN BASERRI BIDEEN ZOLADURA ETA SANEAMENDU PROIEKTUAK
EGITEKO LAGUNTZA PLANA ETA EGINDAKO BIDEEN MANTENIMENDUA ETA
ERABILERA BEREZIA ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA**

ditu lan horiek, eta aldi berean, hormigo-baleak jasotzeko eta harrobiko materiala eskatzeko ardura izango du.

Bestalde, exekuzio modalitate honetan, lurra mugitzea, saneatzea eta zorua sendotzeari dagokion proiektuaren zatia, Udalak hartarako kontratatuko enpresa batek egingo du eta erabiltzaileek eta Udalak ordainduko dute, hemen ezartzen diren ehunekoen arabera:

- Lurra mugitzea eta harri lubetak: Udalak % 100; erabiltzaileek %0
- Zorua sendotzea: Udalak %100; erabiltzaileek %0
- Saneatzea: Udalak %80; erabiltzaileek %20

Kaxa eta areka irekitzeko lanak eta dagokion hormigonatuko lanak auzolanarean egingo dira edo ez, Udalak kasu bakoitzean hartutako erabakiaren arabera, kasu bakoitzean jasotzen diren gorabehereri jarraituz.

b.- Kontrata bidezko modalitatea hormigoizko zolatuan; hartarako kontratatutako enpresa espezializatu baten bidez egiten diren obra guztiak dira horiek. Lanen kostuak honelaxe ordainduko dira:

- Zolatu eta saneatzeko obra osoaren kostuaren %20 bidearen erabiltzaileei egokituko zaie, eta bidearen zatikatze egokia lortzeko behar diren harri-lubetei dagokiena bakarrik salbuetsiko da kopuru horretatik, eta oso-osorik Udalak hartuko du beregain obra hori.
- Gainerako %80 Udalak finantzatuko du.

c.- Kontrata bidezko modalitatea aglomeratuko zolatuan; hartarako kontratatutako enpresa espezializatu baten bidez egiten diren obra guztiak dira horiek. Lanen kostuak honelaxe ordainduko dira:

- Zolatu eta saneatzeko obra osoaren kostuaren %10 bidearen erabiltzaileei egokitu zaie, eta bidearen zatikatze egokia lortzeko behar diren harri-lubetei dagokiena bakarrik salbuetsiko da kopuru horretatik, eta oso-osorik Udalak hartuko du beregain obra hori.
- Gainerako %90 Udalak finantzatuko du.

10. Artikulua.

Dagokion auzoko alkatetzari eskatatu ostean egingo da auzolan modalitatearen bidez, eta haren konpromisoarekin. Alkatetza horrek zehartu eta antolatuko ditu partehartzaileen kopurua eta lan-taldeak, nahiz eta nahikoa jende egongo da, hormigoiko 100 metro lineal bakoitzeko 15 eta 20 ordu artean egin ahal izateko moduan.

11. Artikulua.

Obretan parte hartzen duten pertsonak, auzolanaren arabera, behar bezala aseguraturik egon beharko dute, lanak egitean izan ditzaketen istripu-arriskuei aurre egiteko, eta sor lezaketen erantzukizun zibiletik aseguraturik ere bai.

12. Artikulua.

Erabiltzaileei dagokien zatia, modalitateetako edozeinetan, honela ordainduko da:

-Kontrata sinatzen den momentuan ordainduko da %50.

-Gainerako %50 bidea amaitu eta gero ordainduko da, eta bukaerako obra-likidaziora egokituko da eta aportazioa aldatuko da, obran egon izan diren aurrekontu-aldaeren arabera.

Obrak egin bitartean, aurrekontatuko proiektua nabarmen haunditu edo aldatu behar izanez gero, eta alde zuzenetik onarturik, erabiltzaileen jakinaren gainean jarriko dira aldaera hori eta desbideraketa ekonomiko hori, dagozkion ondorioetarako.

BIDEEN MANTENIMENDUA

13. Artikulua.

Mantenimendu prebentiboa, hau da, bidean eroritako materialak kentzea, kainuak eta arekak garbitzea, bidea behar den bezala erabil dadin zaintzea eta dagokionak adieraz dezala bidezuloak daudela eta berariazko baimena behar duenak bidea erabili behar duela adieraz dezala, bidearen erabiltzaileari(ei) dagokio(e).

14. Artikulua.

Bideak izan lezakeen ustekabeko edozein kalteren berri eman beharko diote Udalari bidearen erabiltzaileek, Udalak bide hori konpon dezan ahalik eta lasterren, kalte gehiago eta haundiagorik sor ez dadin.

Onarpen-kontratuan jasoko da aipu hori.

15. Artikulua.

Erabiltzearen ondorioz, istripu atmosferikoen eraginez eta kontserbazio-faltari egotzi ez dakizkiokeen beste arrazoi batzuegatik, errodadura-geruza hondatutakoan, auzolanean nahiz kontrata bidez konpondu ahal izango da, eta 9. artikuluan proiektuak egiteko ezarrita dagoen moduan finantzatuko da konpontze-lan hori.

16. Artikulua.

Bidean kalte-hondamendiak izaten direnean, kontserbazio desegoki baten ondorioz edo mantenimenduan akatsak izan direlako, Ordenantza honetan datorrenaren arabera, horiek konpontzea arauak bete ez dituztenen ardura izango da.

EGINDAKO BIDEEN ERABILERA BEREZIA

17. Artikulua.

Gehienez ere 20 tonako baimena dutenena baino piso handiagoa duten ibilgailuak baserri-bideetatik zirkulatzea erabilera berezizat joko da.

Dena den ere, abelur ustiategiarekin (ganadujatekoa, pentsuak... eramatea) zuzenean loturarik ez duenean handik pasatzea, ez da erabilera berezitzak joko.

Edozein modutan ere, erabilera berezizat joko dira lehen paragrafoan aipatutako ibilgailuak zirkulatzea, baserrian obra egin edo abelur ustiatagia izan, edo betelur eta basolanak eginez gero.

18. Artikulua.

Bide zolatuetan erabilera berezia egiteko, udalaren baimean izan beharko dute interesatuek.

19. Artikulua.

Bidearen erabilera berezia behar duten garraiolari, kontratista edo erabiltzaileek eskatu beharko dute berariazko baimen hori, eta hauek jasoko dira eskaera horretan:

- a) Jabearen edo kontratistaren identifikazio-datuak.
- b) Garraia egiteko ibilgailuei buruzko datuak (marka eta modelo, ardatz-kopurua, tara eta gehienezko pisu gordin baimendua), eta datua hauek zehaztuko dira: martikula, egin beharreko bidaia-kopurua, bidaiako ibilbideak, kokaleku-planoan azalduta.
- c) Garraiatu beharreko materialen tona (pisua).
- d) Garraioa noiz hasiko eta bukatuko den.

e)Materialak pilatu behar badira, adierazi grafikoki zein lekutan.

f)Datorren mendiaren edo lekuaren izena eta kokalekua, eta katastro-erreferentzia zehaztuko du.

g)Egin beharreko talarako baimena, baso-gaietan agintari ahalmendunak emanda.

20. Artikulua.

Prezio publiko bat ordaindu behar da zolatutako bideen erabilera berezian, Ordenantza fiskalean ezarritakoaren arabera. Hobariak agertuko ditu ordenantza horrek %75eko zenbatekoan, dagokion bidea egiteko finantzatzen parte hartu duten erabiltzaileentzat.

Prezio publiko horren ordainketaren bidez lortutako diru sarrerak nondik datozen, bide horietan inbertituko dira. Udalak, diru-sarrera horien gordailuzaina, horien kontabilitate-kontrol orokorra eraman beharko du. Auzo alkateek eta auzoetako batzordeek ere kontrol paralelo bat eraman beharko dute, bideen arabera egin behar dena. Dagokion informazioa pasatuko zaie horieil.

21. Artikulua.

Aurrekoaz gain, fidantza bat jarriko du lizentzia eskatzen duenak, ml-ko 300 ptan.n kalkulatu da kopurua, bidearen luzeraren arabera. Edozelan ere, zenbateko txikiena 100.000 pezetakoa izango da eta handiena 500.000 pezetakoa.

Dena den ere, garraio bereziak bost joan-etorri baino gehiago egin behar duenean jarri behar da bakarrik, hau da, bidearen erabilera bereziak bost kamiokada edo gutxiago behar duenean, ez da fidantzarik jarri behar.

Bermeak, eskudirutan edo banku-abalez egin ahal izango dena, bideak erabili bitartean sor litezkeen kalteei erantzungo die.

22. Artikulua.

Bidearen erabilera amankomuna eta publikoa bermatu beharko dute aprobetxamenduaren onuradunek, eta hartarako, behar diren konponketa eta garbiketak egin beharko dituzte, aprobetxamenduak dirauen bitartean.

Edozein modutan ere, konturik haundiena izango dtue erabiltzaileek zirkulazioa (handik ibiltzea) ez kaltetzeko, eta ezin izango dute hartu bidea enbor, zuhaitzen enbor, abarrez, eta beharturik daude bide publikotik kentzera ibilgailuek utzitako produktuak, hala nola, lurra, harriak, e.a.

23. Artikulua.

Kasu guztietan, debekaturik dute hauek guztiak bideak erabiltzea:

- Oruga ibilgailuek.
- Ibilgailu katenatuek.
- Bidezoruan arrastaka eramateko ibilgailuek.
- Errodadura-bandako ibilgailuek.

-Errodadura-ardatz bakoitzeko, 8 tonako pisu maximo gordinetik gorako ibilgailuek.

24. Artikulua.

Bidearen erabilera berezia amaitutakoan, jarritako fidantza itzultzeko eskatuko du interesatuak, Alkatearen izenean bidalitako idazki baten bidez, eta aipatu erabilera amaitu dela aipatuko da idazkian. Komunikazioa jaso ondoren, bisita bat egingo dute udalaren teknikariek, bidea zein egoeratan geratu den egiaztatzeko, eta kalterik izan ez badu bide horrek, aipatu fidantza itzuliko da, gehienez ere hilabeteko epean.

ARAUBIDE ZEHATZAILEA

25.- Artikulua.

Gipuzkoako Errepide eta Bideei buruzko azaroaren 25eko 17/1994 Foru Arauan agertzen den araubide zehatzaileak arautuko ditu Ordenantza honetan agertzen diren preskripzioen arau-hausteak, eta 1.600.000 pezetara arteko isunak ere aurrikusten dira horretan.

Udalaren baimenik izan ezean baserri-bidearen erabilera bereziak, isunaz santzionatuko da, eta arau-haustearen arduradunak izango dira, ibilgailuaren gidaria edo jabea, eta ibilgailua zertarako erabili den, lan horien sustatzailea.